

# Eskolako Aldizkaria

Nafarroako Ingurumen Hezkuntzako ekipamenduei buruzko argibideak  
15. zk.

## Erronkariko naturaren interpretazio zentroko instalazioak berritu dituzte

Pirinioetako eta Erronkariko biodibertsitateak duen garrantzia jakinaraztea herritarrek ohartarazteko hori zaintzeak zenbaterainoko garrantzia duen. Horixe zen helburua duela 14 urte, eta horixe da baita orain ere. Hala ere, eskaintza hobetu eta taldeak kudeatzea errazteko asmoz, aretoen eta guneen antolamendua aldatu dute, eta, gainera, eduki didaktikoak eta horien euskarri fisikoak eguneratu dituzte.



Erronkariko NIZ zentroa. Behealdea. Hegaztien modulua

Eduki berrien euskarriak digitalak dira eta disko gogorren bidez kontrolatzen dira. Horrenbestez, modu automatikoan egokitzen dira instalazioko edukiak erabiltzaileetara: Lehen Hezkuntzako ikasleak, Bigarren Hezkuntzakoak, ikusteko edo entzuteko arazoren bat duten pertsonak... Gainera, lau hizkuntzatan ikus eta entzun daitezke.

Edukiak oso erraz eguneratzen dira, urtaroarean arabera. Hori dela-eta, urtebetean egindako bi bisita ez dira berdinak izango, jarduera desberdinak egiten baitira.

Hegaztien moduluan, Erronkari ibarrean ohikoak diren eguneko hegaztiak identifikatzeko aukera dago. Pirinioetako hartzei eskaintako moduluan Erronkarin bizi diren hartzak erakusten zaizkie ikasleei, eta, era berean, nola ezagutu haien aztarnak, gorotzak, arrastoak...



Erronkariko NIZ zentroa. Lehen solairua. Hartza eta biodibertsitatea modulua



Lehen solairua. "Bost partaila, izakien eta paisaien dibertsitatea, Erronkarin" modulua



Lehen solairua. "Bost partaila, izakien eta paisaien dibertsitatea, munduan" modulua



"Geologia" modulua, itsasoa dago Erronkariko substratu geologikoaren jatorrian

Dibertsitateari buruzko moduluen helburua da ikasleei ideia hau helaraztea: gizaki moduan, gure bizitzarako biodibertsitateak duen balioa ezin kalkulatuzkoa da, eta izaki bizidunen eta gizakien artean dauden harremanak zenbaitetan oso ahulak dira.

Dena nola hasi zen jakiteko, geologiari buruzko moduluan, erakusten dute sedimentuen jatorrian itsasoa dagoela, mendiak nola sortu diren eta, elementuen indarraren ondorioz, gero paisaia nola eratu den.

"Antzerki birtuala" atalean, ibarreko habitatak azaltzen dituen maketa batean magikoki agertzen den basozainak, Idoiak, ibarrean bizi diren izaki bizidunak erakusten dizkigu. Horietako asko galzorian daude eta soil-soilik Pirinioetan bizi dira.

Bisiten osagarri moduan, zentroko lantaldeak kanpoan egiteko bisitak eskaintzen ditu. Hain zuzen, aukera horiek aldizkari honen barneko orrialdeetan daude azalduta.

# Ingurumen Hezkuntzako Ekipamenduak zer diren eta zer egiten duten

## Otsagabiako Naturaren Interpretazio Zentroa

Baliabide interaktiboekin bitartez Zaraitzuko Ibarren informazio orokorra ematen da jakitera, baina bereziki, urtaroz urtaro, Iratiko oihana aipatzen da (Europar ongien kontserbatutako izei-pagadietako bat).

Ikasleak ibar honetako alderdi guztiak ezagutzen ahal ditu, eskura baitaizka panelak, maketak (Nafarroako Pirinioak), ikus-entzunezko bat, joko interaktiboak, lanabes tradizionalen erakusketa bat, eta, horietaz gainera, monitoreek antolatzen dituzten jarduera eta jokoak. Eskualde honetan bizi diren hainbat espeziaren deskripzioak ere badaude. Espezie horietako asko galzorian daude.

Hitzordua telefono bidez hartzerakoan aukeratzen ahal da nolako bisitaldia egin. Nolanahi ere, Erronkarin eta Bertizen bezala, bisitaldia probetxugarriagoa da Zatoz Zaraitzu ezagutzera izeneko hezkuntza materialaren laguntzarekin egiten bada. Material hori 8-12 urteko neska-mutikoei dago zuzendua.

Halaber, badago izenburu bereko beste material bat, 13 eta 16 urte arteko neska-mutilentzat.

Beste hezkuntza proposamen batzuk Ingurumen Departamentuko Oihanak izeneko unitate didaktikoan aurkituko dituzue. Bisita mota honek hiru ordu edo hiru eta erdi iraunen du; izan ere, Naturaren Interpretazio Zentrorra egiten den bisitalditik aparte, NIZeko monitoreek gidatutako



*Ingurumenaren aldeko Eguna ospatzen, Otsagabian*

ibilaldiak egiten dira (herrian berean edo Muskildako basilizara autobusez igo eta oinez jaitsiz, adina kontuan hartuta).

Bisitaldia doan da, eta erakundeak berak jartzen ditu material didaktikoak eta monitoreak. NIZa Otsagabian berean dago, Itzaltzuko errepidean, z.g.

☎ 948 890 680    [oit.ochagavia@navarra.es](mailto:oit.ochagavia@navarra.es)

Zuen bisitaldirako hitzordua hartzea gomendatzen dizuegu, bisitaldiak probetxuzkoak izateko modu bakarra baita.

## Erronkariko Naturaren Interpretazio Zentroa

Aparteko ezaugarriak dituen lurralde moduan aurkezten du Erronkari Ibarra zentroak, duen geologia bereziaren, klimaren eta habitat naturalaren ikuspegitik, horiek landare eta animalia espezie dibertsitate handia izatea ekarri baitute. Era berean, lurraldeak egun eta tradizioz izan dituen erabilerak ere erakusten ditu, eta bai horiek ingurunean izan duten eragina ere.

Hitzordua telefono bidez hartzerakoan aukeratzen ahal da nolako bisitaldia egin. Nolanahi ere, Erronkarin eta Bertizen bezala, bisitaldiari probetxu handiagoa ateratzen ahal zaio Zatoz Erronkari ezagutzera izeneko hezkuntzamaterialaren laguntzarekin egiten bada. Material hori 8-12 urteko neska-mutikoei dago zuzendua.

DBHko ikasleentzat ere badira hezkuntza proposamenak Ingurumen Departamentuko Oihanak izeneko unitate didaktikoan.



*Erronkariko ikasleak, hartzak utzitako aztarnak lantzen ari dira ingurumen zaindari batek lagundurik.*

Bisita mota honek hiru ordu edo hiru eta erdi iraunen du; izan ere, Naturaren Interpretazio Zentrorra egiten den bisitalditik aparte, NIZeko monitoreek gidatutako ibilaldiak egiten dira (herrian berean edo inguruan, adina kontuan hartuta).

Bisitaldia doan da, eta erakundeak berak jartzen ditu material didaktikoak eta monitoreak. NIZA Erronkariko udalerrian dago (Nafarroako Pirinioetan).

☎ 948 475 317  
[oit.roncal@navarra.es](mailto:oit.roncal@navarra.es)

Zuen bisitaldirako hitzordua hartzea gomendatzen dizuegu, bisitaldiak probetxuzkoak izateko modu bakarra baita.



*Tengmalm hontza*

## Pitillasko eta Vianako Hegaztien Behatokiak

Hegaztien Behatokiak jendeari argibideak emateko eta ingurumen hezkuntzarako azpiegiturak dira. Babes-tutako hezeguneetatik gertu daude. Material optikoa daukate (teleskopioak eta prismetikoak) ekosistema horietako faunari behatzeko.

Fauna hori hobeki ezagutu nahi dutenentzat ibilbide batzuk antolatzen dira, kanpoko aldetik, monitore espezializatuek lagunduta; horrela, bertako paisaia eta flora hobeki ezagutzeko parada izanen dute.

- Bisitaldi arruntak 3 ordu irauten du (irakasleekin adostuta). Ikasle taldeak goizetan hartzen dira, 10:00etatik 14:00ak arte.
- Komeni da alde zuzenetik jakitea nola dagoen Aintzira (uraren altuera).
- Taldekideak gehienez ere 50 izanen dira.
- Leku hori ez da gomendagarria Haur Hezkuntzarako (hegaztiak soilik ikusten baitira aparatu optikoen bidez, eta adin horretako neska-mutikoentzat zailak dira erabiltzeko).
- El Bordón Hegaztien Behatokian bisitaldia egin daiteke bai gazteleraz, bai euskaraz. Pitillaskoan, bisitaldia soilik gazteleraz egiten da.

El Bordón Hegaztien Behatokiak aukera ematen du Vianako hirigunera bisitaldi gidatu bat egiteko.

Galdetu prezioak eta ordutegiak:

☎ 948 446 302

Pitillasen Erriberriko Errege Jauregia bisitatzeko aukera dago (☎ 948 740 035) edo Oliva Monasterioa bisitatzeko (☎ 948 725 006).

Natur Erreserba bat bisitatzeko da; beraz, txukun ibili behar da:

- Beti ere, behatokiko langileekin hitz egin. Gidariarik gabe ez dago bisita egiterik.
- Isilik ibili eta ez egin oihurik eta asotsik.
- Aintzirara ez bota harririk edo beste gauzarik.
- Aintzira inguratzen duen hesira ez hurbildu.



*Pitillas eta Uxueko ikastetxe publikoetako ikasleak beha ari dira hegaztiei.*

Bisitaldia doan da, eta erakundeak berak jartzen ditu material didaktikoak eta monitoreak.

Pitillasko Hegaztien Behatokia herritik 3 kilometrotara dago, Santacarako errepidetik hartuta (hartu ezkerretara, egoera oneko pista batetik sartuta).

☎ 619 463 450

El Bordón Hegaztien Behatokia Las Cañas Aintziran dago, Vianako hirigunetik bi kilometro ingurura, Logroñoko norabidean (errepidean hartu ezkerretara, bide bat dago han). Era berean, Iruñetik Mendabiara eta Logroñora doan errepidetik ere irits daiteke, ondoren Vianako norabidea hartzeko (hala eginez gero, bidegurutzea eskuinetara dago). Aintzirako sarrera adierazten duten seinaleak daude.

☎ 696 830 898 (Utzi mezua)

Zuen bisitaldirako hitzordua hartzea gomendatzen dizuegu, bisitaldiak probetxuzkoak izateko modu bakarra baita.

## Bertizko Jaurerria Natur Parkea

Parkean eskaintzen den hezkuntza jardueraren bidez ikasleak Babestutako Naturgune honetara eta bere ingurunera (Kantauri aldeko ibarrak) hurbildu nahi dira, eta bertako ezaugarri fisiko, biologiko, sozial eta kultural nagusiak erakusteko, hemengo balore guztiak ezagutzeko aukera izan dezaten.

Hezkuntza baliabideen artean Bertizko Jaurerria Natur Parkeak honako hauek ditu: Naturaren Interpretazio Zentroa, Bertizko lurraldea irudikatzen duen maketa, ikus-entzunezkoen gelak, erakusketa ibiltariak Jauregian, Lorategi historikoa, jolasteko zelaiak eta josteta guneak, eta 2.000 ha baino gehiagoko basoa.

Bertizko hezkuntza programa aldian behin ebaluatu eta hainbat aldaketa nahiz proposamen eransten zaizkio, eskari eta egoera berriei erantzuna emateko.

2 ordu irauten duen Parkean barnako hezkuntza eskaintzaz gain —honetan monitoreek taldea gidatzen dute proposatutako jarduera ezberdinen garapenean—, aukera dago

## Irunberriko Arroiletako Interpretazio Zentroa

Zentroaren eginkizuna da arroilek eta beren lurraldeek naturaren aldetik dituzten balioak ezagutu eta zabaltzea (eraketa, landaredia, animaliak).

Arroilak edo mendi zintzurak Agoitz eta Irunberriko aurrepirinioetako arroan daude. Bada, eskualde horretako lurraldearen erabilera, historia eta kultura erakusten dira.

Horretarako, era askotariko baliabide didaktikoak ditu (erakusketak, lurraldearen maketa, arroila bateko giroa birsortu da, horma-irudiak, ikus-entzunezkoa, Irunberriko arroilako faunaren irudiak zuzenean transmititzen dituen telekamera, eta abar).



*Ikasleak Bertizko Parkean*

bi hezkuntza programa berri egiteko, hurrengo atalean azaltzen direnak.

Parkea Oiiregi-Bertizarana udalerrian dago, Iruñetik iparraldera 52 kilometrotara.

☎ 948 592 421

[cinberti@navarra.es](mailto:cinberti@navarra.es)

Zuen bisitaldirako hitzordua hartzea gomendatzen dizuegu, bisitaldiak probetxuzkoak izateko modu bakarra baita.



*Irunberriko arroila ikus-  
teko bisita  
hastera  
doaz ikas-  
leak.*

Zentroak 2 bisita mota eskaintzen ditu.

### • 1. bisita mota

Interpretazio Zentroan.

Iraupena, gutxi gorabehera: 1:15 ordu.

Hona lantzen diren edukiak: Kareharriaren eta arroilen eraketa, arroilen garrantzia: naturgune babestuak. Harkaitzetako hegaztiak, oro har.

Zehazki, sai arrearen ohiturak eta ezaugarriak. Gizakiaren eraginez arroan sortu den paisaia,

arroiletako harkaitzekin alderatuta. Informazio hori guztia ageri da gorago aipatu ditugun zentroaren baliabideetan.

## • 2. bisita mota

Irunberriko Interpretazio Zentroa eta Arroila. Iraupena, gutxi gorabehera: 3:30 ordu. Zentroan lantzen dira 1. bisita motan azaldutako edukiak.

Arroilan gai hauek lantzen dira: Arroila, naturgune babestua, Erreserba Naturala. Nafarroa mediterranearraren landaredia, gizakiak eraldatutako paisaia eta berezko paisaia. Irati tren. Eduki horien osagarri, behaketak egiten

## Urbasa eta Andia Natur Parkea

Urbasa-Andia Natur Parkea Nafarroako mendebaldean dago. Urbasa eta Andiak, parkea osatzen duten altuera ertaineko mendiek, bi zonalde bioklimatikoren (atlantikoaren eta mediterraneokoaren) arteko hesi geografikoa osatzen dute.

Urbasa-Andia Natur Parkea balio geologiko, biologiko, ekologiko, paisajistiko, arkeologiko eta soziokultural handiak dituen naturgunea da. Balio multzo handi hori ikusita, Nafarroako Gobernuak lurralde horiek natur parke izendatu zituen, beraien kontserbazioa bermatzeko eta hori erabilera tradizionalak mantentzearekin eta naturaz gozatzetik eratorritako erabilera berriekin bateragarria izan zedin.

Parkeak jendeari bere balioen berri emateko zerbitzu eta ekipamenduak ditu.

## • Informazio Zentroa.

Bisitariari Urbasa eta Andia balio paisajistiko, ekologiko, historiko eta kulturaletako batzuk erakusteko. Horrez gain, aparteko paraje horiek zaindu eta mantentzeko oinarritzko arau eta gomendio batzuk ere gogorarazten dira.

## • Interpretazio Eremua.

Bertan, Urbasak izan ohi zituen erabileren elementu adierazgarrietako bi aurkituko ditu bisitariak: artzain txabola —Seberinoren borda— eta txondorraren erreproduktzioa. Seberinoren bordara joaten den bisitariak Urbasako artzainen bizitzaren nolakotasunak hurbilago ikusiko ditu. Urbasa eta Andia mendiek antzina izan ohi zituzten erabileren beste elementu

dira hegaztiak ikusteko: harkaitzetan nola dauden pausatuak, habiak. Horretarako, prismetikoak eta teleskopioa erabiltzen dira.

Bi bisitak euskaraz nahiz gazteleraz egin daitezke. Zentroa Irunberri bertan dago. Helbidea: Plaza Nagusia, z/g.

☎ 948 880 874

[cinlumbi@navarra.es](mailto:cinlumbi@navarra.es)

[www.nafarroakoarroilak.es](http://www.nafarroakoarroilak.es)

Zuen bisitaldirako hitzordua hartzea gomendatzen dizuegu, bisitaldiak probetxuzkoak izateko modu bakarra baita.



*Lehen hezkuntzako ikasleak, Urbasako NIZen.*

## • Hiru bidexka sarea: "Iturriena", "Artzainena" eta "Mendizaleena".

Ez dago eskola bisita eredu finkorik; taldearen interesen arabera eta taldeak daukan denboraren arabera, parkeak eskaintzen dituen ibilbideetako batekin konbina daiteke Informazio Zentrorako bisita. Zentrorra egiten den bisitan parkearen edukiari buruzko informazioa eskuratzen dute ikasleek. Ekosistema desberdinetan barna ibilbideak egiteak bertako flora eta fauna espezieak identifikatzeko aukera ematen du. Bi jarduerok antolatzaileek taldeari ematen dizkioten fitxa didaktikoak biltzen dituzte. Ikasle taldeen bisitak posta elektronikoz eta weborri ados daitezke:

[gestcin@gavrn.com](mailto:gestcin@gavrn.com)

[www.urbasaparkea.es](http://www.urbasaparkea.es)

Bisita aurretik adostea gomendatzen dizuegu, soilik horrela bermatu ahal izango baitugu heziketaren aldetik ongi aprobetxatuko direla.

# Ingurumen Hezkuntzako Ekipamenduak bisitatzeko hitzordua nola hartu



*Zuhaitz Eguna Iruberrin*

## • Noiz?

Goizeko 10:00etatik 13:30era, asteartetik ostiralera.

## • Nola?

Bisitaldia hitzartu nahi duten taldeek egiten ahal dute Ekipamendu bakoitzean edo buletin honen bukaerako direktorioan adierazitako telefonoetako baten bidez. Monitoreak hitzordua ematen ditu deien hurrenkeraren arabera eta, aldi berean, bisitaldiaren modalitatea zehazten da.

## • Zerbait ordaindu behar dut?

Ikastetxeek Interpretazio Zentroetara eta Hegaztien Behatokitara eginiko bisitak dohainik dira.

## • Kontuan hartu beharrekoak

- Interpretazio Zentroetan gehienez ere 60 laguneko taldeak onartuko dira, eta Behatokitetan 50ekoak.
- Gehienetan taldea bitan banatzen da eta, txandaka, batzuk kanpotik ibilaldi bat egiten duten bitartean (irakasleekin adostu beharrekoa), beste batzuek instalazioetara egiten dute bisita..
- Zentro eta Behatokitako jarduera "arruntak" hiru bat ordu irautean du, baina denbora hori luzatu nahiz laburtu egiten ahal da, talde bakoitzaren beharren arabera.
- Eskola taldeak hartzeko ordutegia kontsultatu behar da.
- 25 lagun baino gehiagoko taldeentzat bi gidari espezializatu ditugu.
- Bisitaldiak gaztelaniaz nahiz euskaraz izan dai tezteke (kontsultatu).



*Erronkariko ikasleak paisaiari buruz ari dira lanean, ibarreko ariztasunaren alderdia baita.*

# Albisteak eta berriak

## Arroilen interpretazio zentroa

### Pirinioetako saiei jarraika, Nafarroan, Aragoian eta Ossau bailaran

Erronkariko eta Otsagabiko interpretazio zentroekin batera, Arroilen Interpretazio Zentroa **Vultouris** proiektuan parte hartzen ari da, lankidetzan aritzeko Aragoiko eta Frantziako Ossau bailarako beste zentro batzuekin. Hain zuzen, Pirinioetako biodibertsitateari balioa emateko egiten ari dira eta bereziki bertako saiekin lotutako guztiari: sai erre, sai zuri eta ugatzarekin lotutakoari.



Besteak beste, proiektuaren barnean dago hauek egitea: saiei behatzeko ibilbideak diseinatzea, natura ingurunean dibulgazio jarduerak dinamizatzea eta zentroetako baliabide museografikoak egokitzea. Hain zuzen ere, proiektu honi esker, aurten **kamera berriak izango ditugu arroiletan**, bai harkaitzetan sai arreari jarraipena egiteko,



*Sai arrea*

bai eta Irunberriko hondakindegian eta Zaraitzuko eta Erronkariko beste toki batzuetan ere. Hartara, arroiletan eta harkaitzietan bizi diren animalia horiek hobeki ezagutzeko aukera izango dugu.

Ikastetxeek egiten dituzten eskola bisitetan erakutsiko dira kamera horien bidez hartutako irudiak, zuzenean hartutakoak eta grabatutakoak.

### "FotoAves: Alas sobre el Agua" erakusketa (Sociedad Española de Ornitología)

Urriari, "FotoAves: Alas sobre el Agua" izeneko erakusketa egongo da zentroan. Sociedad Española de Ornitología elkarteak (SEO) antolatutako erakusketa da.



*Ikasleak, Irunberriko interpretazio zentroan, hegaztien buruzko erakusketa bat ikusten*

Hain zuzen ere, lehiaketa nazional batean aurkeztutako argazkien hautaketa bat da, eta helburu hau da: bai espezieak, bai horiek bizi diren tokiak, zaintzeak duen garrantziari buruz sentiberatzea erakusketa ikustera joaten direnak. Urriaren 3an hegaztien mundu eguna izango da, eta egun horren oroitzapena egiteko asmoz jarriko dute erakusketa.

[www.parquedebertiz.es](http://www.parquedebertiz.es)

[www.focesdenavarra.es](http://www.focesdenavarra.es)

[www.parquedeurbasa.es](http://www.parquedeurbasa.es)

[www.vianakoaintzira.es](http://www.vianakoaintzira.es)

[www.lagunadepitillas.org](http://www.lagunadepitillas.org)

# Bertizko Jaurerriko Natur Parkea

## Heldu den ikasturterako heziketa programak

10:00-14:00 ordutegian, eta, gehienez ere, 60 ikasle onartuko dira egunean.

### 2 orduko jarduerak.

3 eta 16 urte arteko ikasleentzat, eta hezkuntza maila bakoitzerako egokiak diren jarduerak. Hain zuzen, herrigune askotan oraindik ere bizirik dauden tradiziozko bizimoduei balioa ematean datza. Bertzen lekukotasunezkoak dira bizimodu horiek egun. Gainera, ikasleek ulertu behar dute zenbaterainoko garrantzia duen horiek zaintzeak. Horrez gain, basoko zuhaitz espezie nagusiak identifikatu eta ezagutuko dituzte.

### 4 orduko jarduerak.

#### Heziketa programa berria, Naturaren Interpretazio Zentrorako

Heldu den ikasturtean, Bertizko Jaurerriko Natur Parkeko erabilera publikoko taldeak abian jarriko du ikasle taldeentzako programa: 8 eta 16 urte arteko ikasleentzat izango da, adin eta hezkuntza mailaren arabera. Helburu hau izango du: basoaren kudeaketa osoa eta iraunkorra zer den eta nola egiten den jakitea, eta bai biodibertsitatea zaintzeak zenbaterainoko garrantzia duen jakitea ere. Bisita egiten duten bitartean, jarduerak egingo dituzte begiraleekin, interpretazio zentroan, baso-mintegian eta basoan.

#### Heziketa programa, baso-mintegirako eta lorategi botanikorako

6 eta 12 urte arteko ikasleentzat da. Hain zuzen, basoak modu iraunkorrean garatzeko egin behar diren gauzen artean, basotzeko lanetan, adibide

moduan baso-mintegi batek nola funtzionatzen duen erakutsi nahi da, eta, bide batez, landatzeko prozesua azaldu. Bisita egiten duten bitartean, jarduerak egingo dituzte begiraleekin, baso-mintegian, lorategi botanikoan eta Bertizko basoan.



*Naturaren Interpretazio Zentroa*

#### Heziketa programa, Zabala Etxea aterperako

Bi egunetan egiten da (gau bat), eta horietan hainbat jarduera egiten dituzte ikasleek aire zabalean. Parkeko begiraleek zuzentzen dituzte jarduera horiek, eta ikasleen adin eta hezkuntza mailaren arabera izaten dira.

Parkeko langileek antolatutako jarduera horiez gain, beste jolas-jarduera batzuk eta aisialdikoak egin ahal izateko aholkuak ematen zaizkie irakasleei, hartara, parkeak eskaintzen dituen baliabideak eta ekipamenduak erabil baititzakete.

Zabala Etxea aterpera joaten diren 3 eta 8 urte arteko ikasle taldeentzat besterik ez da programa hau.

#### NIZ zentroa berriz irekitzea

2008ko abuztuan Naturaren Interpretazio Zentroa ireki zuten herritarrentzat guztiz berrituta. Bisitariak Bertizera egiten duen bisitan argibideak ematea eta orientatzea du helburu, eta horretarako, bertan dauden natura eta kultura balioak hobeki ezagutzeko eta gozatzeko aukera eskaintzen da.



*Bertiz. Zabala Etxea*

## Jarduera berriak Otsagabiko Niz-en

### Otsagabiko taldearen proposamen batzuk daude ondoren:

Jarduera guztiek eskema berberari jarraitzen diote

- 09:00 h. Abiatu egiten dira jatorrizko tokitik.
- 10:15 h. Otsagabira iristen dira, eta ibilbidea edo jarduera egiten dute kanpoan.
- 11:30 h. Hamaiketako jaten dute eta tokiz aldatzen dira.
- 12:00 h. Bisita gidatua egiten dute **Otsagabiko NIZen**.
- 14:00 h. Bazkaldu egiten dute Otsagabian.
- 15:30 h. Itzuli egiten dira jatorrizko tokira.

NIZera bisita egitea proposamen guztietan ageri da, aurretik edo ondoren informazio osagarria lortzeko modu bat baita, eta bai kanpoan egindako bisitan ikasitakoa interpretatzeko ere.

### **Pirinioak, hartzeekin edo Ugatzaren begirada**

Jarduera hauen helburua da ikasleek ezagutzera gure inguru geografiko honetan dugun animalia dibertsitatea, espezie horien ezaugarri diren bereizgarri biologikoak bereizten ikastea, animalia horiek bizi diren ekosistemetan zein eginkizun dituzten ulertzea, eta animalia horien populazioek Pirinioetan duten bilakaerari eta zaintzeko aplikatu diren neurriei buruzko informazioa hartzea.



*Zaraitzuko ikasleak, Pirinioak, hartzeekin jarduera egiten*

### **Abelbidea. Biodibertsitatea, Nafarroan, iparretik hegora**

Pirinioetatik abiatzen diren abelbideak erabiltzen dira jarduera honetan, ezagutarazteko horien ibilbidean Nafarroan dagoen paisaia eta natura dibertsitatea.



*Artaldeak, Zaraitzuko abelbidean pasatzen*

Jardueraren helburu espezifikoak hauek dira: Zaraitzuko abelbideak hartzen duen bidea ezagutaraztea, artzainen bizimodua eta haiek biodibertsitatea zaintzeko duten garrantzia, planoak erabiltzen ikastea, eta Nafarroako zonaldeak bereizten ikastea, paisaiaren, landarediaren eta abarren arabera.

### **Jinkana, Otsagabian**

Jarduera honen bidez lortu nahi da Otsagabiko eta Zaraitzuko arkitekturaren, historiaren eta tradiziozko erabileren berri ematea, herri eder horretako kale harriztatuetan egin beharreko joko baten bidez. Hain zuzen ere, herriko kulturako eta ondareko zenbait alderdi ezagutzeko eta ikertzeko lana planteatzen da joko horretan.



*Jinkanan erabiltzen den materiala*

# Erakusketa berria. Jarduera berriak Erronkariko Niz-en

## Erronkariko taldearen proposamen batzuk daude ondoren:



*Ikasleak Erronkarin. Basoan ari dira egiten jarduera*

- Jarduera guztiek eskema berberari jarraitzen diote
- 09:00 h. Abiatu egiten dira jatorrizko tokitik.
  - 10:15 h. Erronkarira iristen dira, eta ibilbidea egiten dute kanpoan.
  - 11:30 h. Hamaiketakoak jaten dute eta lekuz aldatzen dira.
  - 12:00 h. Bisita gidatua egiten dute **Erronkariko NIZen**.
  - 14:00 h. Bazkaldu egiten dute Erronkarin.
  - 15:30 h. Itzuli egiten dira jatorrizko tokira.

NIZera bisita egitea proposamen guztietan ageri da, aurretik edo ondoren informazio osagarria lortzeko modu bat baita, eta bai kanpoan egindako bisitan ikasitakoa interpretatzeko ere.

### Ura eta harkaitza, biziz beteriko mundua

Jarduera honetan, txandakatzen dira Burgiko arroilan egiten den ibilbide bat (natur erreserba da arroila hori) eta harkaitzi honi egiten zaion behaketa (prismatikoak eta teleskopioak erabilia), bertan hegazti mordo bat bizi baita, bereziki harrapariak.



*Burgiko Arroilaren Natur Erreserbaren inguruan dauden labarrak*

### Hartzaren ibilbidea

Jarduera honetan, txandakatzen dira interpretazio zentrori bisita egitea eta kanpoan ibilbide bat



egitea, hartz arrearen habitata zein eta nolakoa den jakiteko: aztarnak, seinaleak.

*Hartza Erronkarin*

### Paisaia interpretatzea

Kasu honetan, irteera Belagua ingurura egiten da, eta helburua da jatorri glaziarra duen erliebe honetako paisaia eta modelatua interpretatzea.



*Ikasleak Belaguan, Nafarroan, jatorri glaziarra duen bailara bakarrean*

### Mata de Haya, sentipen mundua

Mata de Haya izeneko baso inguruan egiten da bisita, eta helburua da basoak eragiten dituen sentipenak sentitzea.

### "Vulturis" ibilbidea, Pirinioetako saiak ezagutzen

Jarduera honetan, ibilbide bat egiten da bailaran eta zenbait tokitan gelditzen dira ikasleak (Mintxate, Roncal,..), hegazti sarraskijaleei behatzeko eta haiek ekosisteman duten eginkizun garrantzitsua azaltzeko. Prismatikoak eta teleskopioak uzten zaizkie ikasleei hegaztiei behatzeko.

Gogorarazi behar dugu badela aukera NIZeko begirale bat, bisita egin aurretik, ikastetxera joan eta sentiberatzeko eta inguruari buruzko informazioa emateko jarduera batzuk egiteko ikasleekin.

# Baliabideak

## BALIABIDE OROKORRAK

### Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa

Badu Dokumentazio Zentroa eta ingurumenari nahiz ingurumen hezkuntzari buruzko liburutegi espezializatua.

Halaber, badu erakusketa eremua.

#### Helbidea:

Aita Adoain, 217 - behea. 31015 Iruña

☎ 948 14 08 18      [crana@crana.org](mailto:crana@crana.org)

### Hezkuntza materialak

#### • Ingurumen Hezkuntzako Koadernoak

Ingurumen Departamenduak Unitate Didaktikoen bilduma argitara eman zuen. Eskura daude Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroaren web eta hau da aukera:

[www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html](http://www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html)

### Web

#### • Ingurumen Departamentua

Zuzeneko sarbide Ingurumen web orrialdera:

[www.navarra.es](http://www.navarra.es)

#### • SITNA

Sigla horiek Nafarroako Lurralde Informaziorako Sistemari dagozkio. Orri badu sarbidea Nafarroako Kartografi Informaziorako datuen Baseetara:

<http://sitna.navarra.es>

### Informazio eta Dokumentazio Zentroak

Naturaren Interpretazio Zentro eta Behatoki

bakoitzean bada Dokumentazio Zentro txiki bat, kontsultarako, ingurumen arloko liburuz hornitua.

Ingurumen Hezkuntza Formaleko liburuak azpimarratu behar dira, gelan hainbat gai lantzeko.

## EKIPAMENDU BAKOITZEKO BALIABIDEAK

### Pitillasko Aintzirako Hegaztien Behatokia

- **Behatokia bisita egiteko karpeta didaktikoa:** Eskura dago argitalpen inprimatuan, gazteleraz eta euskaraz (eskatu Behatokian).

#### • *Nafarroako hezeguneak*

Bestelako proposamenak biltzen dituen unitate didaktikoa, Pitillas eta Bianako behatokietan jarduerak egiteko. Eskura dago PDF euskarrian eta "behera kargatzeko" aukera duzue:

[www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html](http://www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html)

#### • Txori zezen arruntari dagokion

karpeta didaktikoa,

El avetoro navarro descubre sus secretos alegia. Eskura dago argitalpen inprimatuan, gazteleraz (Behatokian eskatu behar da).

### Las Cañas Urtegiko Hegaztien Behatokia

[www.vianakoaintzira.es](http://www.vianakoaintzira.es)

- **Behatokia bisita egiteko karpeta didaktikoa:** Eskura dago argitalpen inprimatuan, eskatu Behatokian.

- **Material didaktiko** berriak Lehen eta Bigarren Ziklorako Hezkuntzako. Eskatu Behatokian.

[www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html](http://www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html)

- **Nafarroako hezeguneak**

Bestelako proposamenak biltzen dituen unitate didaktikoa, Pitillas eta Bianako Behatokitian jarduerak egiteko. Eskura dago PDF euskarrian eta "behera kargatzeko" aukera duzue:

[www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html](http://www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html)

## Otsagabiko Interpretazio Zentroa

- **Zatoz Zaraitzu ibarra ezagutzera.**

Zentroa bisitatzeko material didaktikoa, **Ingurumen Heziketarako Koadernoak** bildumakoa. Lehen hezkuntzako bigarren ziklorako eta Bigarren hezkuntzako bietarako daude eskura, euskaraz eta gaztelaniaz. Helbide honetan: [www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html](http://www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html)

- **Oihanak**

Bestelako hezkuntza proposamenak biltzen dituzten material didaktikoak Zentroak lantzen duen gai bati buruz, Ingurumen hezkuntzako Koadernoak bildumaren barnean. Eskura daude Lehen Hezkuntzako Bigarren Ziklorako eta Bigarren Hezkuntzako bi zikloetarako, euskaraz eta gaztelera:

[www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html](http://www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html)

## Arroilen Interpretazio Zentroa

[www.nafarroakoarroilak.es](http://www.nafarroakoarroilak.es)

- **Zatoz Arroilak ezagutzera**

Zentroa bisitatzeko karpeta didaktikoa, Ingurumen hezkuntzako Koadernoak bildumaren barnean. Eskura dago Lehen Hezkuntzako bi zikloetarako, euskaraz eta gaztelera, paperean baizik ez. Eskatu Zentroan.

- **Arroilak**

Zentroak lantzen dituen gai bati buruz, bestelako hezkuntza proposamenak biltzen dituzten material didaktikoak, Ingurumen hezkuntzako Koadernoak bildumaren barnean. Eskura daude Lehen Hezkuntzako Bigarren Ziklorako eta Bigarren Hezkuntzako bi zikloetarako, euskaraz eta gaztelera:

[www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html](http://www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html)

### BESTELAKO BISITAK

(NIZren bidez adostu behar dira)

- **Arbayún Zaldiketa Zentroa (Usún).**

Zaldiei hurreratzeko tailerrak, zeramika tailerrak, arku-tiro tailerrak eta ibilaldiak txirrindulaz. Produktu ekologikoekin prestatutako janaria jateko aukera. Prezioak kontsultatu.

- **Bordablanca finka**

Adin guztietako ikasleentzako bisita gidatuak egiten dira Irunberriko mugapean dagoen landare aromatiko eta sendabelar sailera. Berotegian, mintegietan, landare idortegian, konpostaje-plantan eta propietate medizinalak, aromatikoak dituzten 20 landare, zuhaixka eta zuhaitz bariatate baino gehiago landatzen diren lursailetan egiten den lana ikusten da. Prezioak kontsultatu.

## Bertziko Jaurerria Natur Parkea

[www.bertizparkea.es](http://www.bertizparkea.es)

Naturaren Interpretazio Zentroa berritzearekin batera, material didaktikoak ere berritzen ari dira. Behin eginda, ikastetxeei hauen erabilgarritasunari zein edukiari buruzko informazioa emanen zaie.

Ingurumen Hezkuntzako programen inguruko edozein informazio eskatu nahi izanez gero, Parkearekin harremanean jarri

☎ 948 592 421 [cinberti@navarra.es](mailto:cinberti@navarra.es).

## Erronkariko Interpretazio Zentroa

- **Zatoz Erronkari ezagutzera**

Zentroa bisitatzeko material didaktikoak, Ingurumen hezkuntzako Koadernoak bildumaren barnean. Eskura daude Lehen Hezkuntzako Bigarren Ziklorako eta Bigarren Hezkuntzako bi zikloetarako, euskaraz eta gaztelera:

[www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html](http://www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html)

- **Espezie babestuak**

Bestelako hezkuntza proposamenak biltzen dituzten material didaktikoak Zentroak lantzen duen gai bati buruz, Ingurumen hezkuntzako Koadernoak bildumaren barnean. Eskura daude Lehen Hezkuntzako Bigarren Ziklorako eta Bigarren Hezkuntzako bi zikloetarako, euskaraz eta gaztelera:

[www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html](http://www.navarra.es/appsext/EducacionAmbiental/index.html)

### BESTELAKO BISITAK

(NIZren bidez adostu behar dira)

- **Izaba.** Casa de la Memoria  
(Izaba, Erronkaritik 7 km-tara).
- **Almadiaren Museoa (Burgi).**
- **Kabila Enea Gaztaren Museoa (Uztarroz).**

Erronkaritik 12 km.ra. Erronkariko gaztagintza, abere-jarduera, tresnak, ardiekin erlazioa duten beste tradiziozko lanbideak, historia...

# Zentroen direktorioa

## Nafarroako Gobernu ingurumen hezkuntzako ekipamenduen kudeaketa eta informazio orokorra

[www.gavrn.com](http://www.gavrn.com)

Ingurugiroaren Kudeaketa-Nafarroako  
Mintegi eta Basoberritzeak

Aita Adoain, 219 behe. 31015 Iruña

☎ 948 382 438 Fax: 948 382 391

[gestcin@gavrn.com](mailto:gestcin@gavrn.com)

## Arroiletako Naturaren Interpretazio Zentroa

[www.nafarroakoarroilak.es](http://www.nafarroakoarroilak.es)

Plaza Nagusia z/g.  
31440 Irunberri

☎ 948 880 874

[cinlumbi@navarra.es](mailto:cinlumbi@navarra.es)

## Bertizko Jaureria Natur Parkeko Naturaren Interpretazio Zentroa

[www.bertizparkea.es](http://www.bertizparkea.es)

Oieregi-Bertizarana,  
Iruñetik 52 kilometrotara

☎ 948 592 421

[cinberti@navarra.es](mailto:cinberti@navarra.es)

## Pitillasko Hegaztien Behatokia

[www.lagunadepitillas.org](http://www.lagunadepitillas.org)

Herritik 3 kilometrotara dago, Santacarako  
errepidean (ezkerretara, pista egoera  
onean).

☎ 619 463 450

## Erronkariko Naturaren Interpretazio Zentroa

Julián Gayarre z/g. Erronkari.  
Erronkari ibarra (Nafarroako Pirinioak)

☎ 948 475 256 eta 948 475 317

[oit.roncal@navarra.es](mailto:oit.roncal@navarra.es)

## El Bordón Hegaztien Behatokia, Las Cañas Aintziran

[www.vianakoaintzira.es](http://www.vianakoaintzira.es)

Vianako herrigunetik 2 kilometrotara dago,  
Logroño bidean (sarrerako bidea, ezkerretara).  
Iruñetik Mendabiara eta Logroñora doan errepide-  
etik ere sar daiteke, Vianako norabidea hartuta  
(horrela eginik, bidegurutzea eskuinetara dago).  
Aintzirako sarrera adierazten duten seinaleak  
daude han.

☎ 696 830 898

## Otsagabiko Naturaren Interpretazio Zentroa

Itzaltzuko errepidea, z.g. Otsagabia.  
Zaraitzu (Nafarroako Pirinioak)

☎ 948 890 680 eta 948 890 641

[oit.ochagavia@navarra.es](mailto:oit.ochagavia@navarra.es)

## Urbasa eta Andiako Natur Parkeko Informazio Zentroa

[www.urbasaparkea.es](http://www.urbasaparkea.es)

Bidegileena izandako etxea,  
Olaztiko mendateko gaina

☎ 948 382 438

[gestcin@gavrn.com](mailto:gestcin@gavrn.com)

## Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa

[www.crana.org](http://www.crana.org)

Aita Adoain 217 behe. 31015 Iruña

☎ 948 140 818

[crana@crana.org](mailto:crana@crana.org)